



Laboa eta Atahualpa, goi mailako emanaldia.

# LABOA eta YUPANQUI

## parean gutienez

Joan den larunbat gauean Donibane Lohitzungo JAI ALAI pelotalekuan eginiko kantaldiari buruz, bi kontsiderazio egin nahiko nituzke kantaldia bera irazkindu aurretik: bata, publizitateari dagokionez ATAHUALPA YUPANKI eta mikel laboaren arteko desproporzioa. Atahualparen argazkiak eginiko "poster" handi baten azpian, MIKEL LABOA izenarekin, soilik, karteltxo xurigorri eskas bat. Biga, bi kantari horien arteko ezberdintasuna dirusaria jasotzerakoan.

EGINen irakurri dudanez, Argentinarako omen zen dirua. Honak ez du publizitate desproporzio iraingarria justifikatzen; ez eta dirusariaren ezberdintasuna. Gure herriko artista, idazle, pentsalari, poeta, sukaldari, kalegarbitzaile zenbaiten izena aldatu edo apaindu bederen egin beharko luke beste edozein kanpotar garrantzitsuren garrantzia izateko; berriz ere, etxekoan eragintza aski zaila izango da.

Kantaldi berari dagokionez, Mikel nahiko zaintsu ikusi nuen hasieran; piskanaka, berraurkitu zen.

Faxismo agintea eta herri zapalduen arteko dialektika zabal eta zehatz biak batera elkar loturik agerra-

razi zigun azken SKETxaz.

Ene kritizian, bere eboluzio pertsonala kantatzen hasi zenetik, horaintxe arte aditzera ematen digu honek; zer nolako baldintza zehatzetan mugitu eta desarroitatu den bere bizia.

Mikrofono batetik agintea, zutik, azkar, mikatz, gordin eta bestetik herri zapaldua, jarririk; ahul, heraberti, beldurti, ezinaren kutsu... piskanaka-piskanaka azkartzen eta segurtzen doana, azkenik Mikelen ahots primitiboak karraxi bizi, aberats, barnekoi batez bukatzeko.

Gero Atahualpa irten zen eta hastapena kitarrak egin zuen; benetan kitarra jotzen oso ona oraino. "Madre Vasca" olerkia esaten hasi zenean, entzulegoa berotu egin zen; poesi hau botatzerakoan, Iparragirreren doinu ezagun bat armonizazio berezi batekin jo zuen kitarrak. Gero gehien-gehiena edo dena hobeki esanda denok ezagutzen genuena.

Eszenarioetariko ezaguera agertu zuen ere, bizpahiru zehazkizunetan. Goi mailakoa benetan, bi gizon hauen emanaldia.

XALBARDIN

Ahaide: Pariente  
 Ahots: Voz  
 Ahutara: Puñado  
 Aise: Cómodamente  
 Akats: Defecto  
 Anker: Sanguinario  
 Apaila(tu): Disponer(-uesto)  
 Apur: Escaso  
 Bakun: Simple  
 Berba: Hitz  
 Dizdizka: Esplendorosamente  
 Duinki: Dignamente  
 Erdiets(i): Lograr (-ado)  
 Erein: Sembrar(-ado)  
 Erruz: Abundantemente  
 Etekin: Ganancia  
 Etsi(tu): Conformarse(-ado)  
 Ezarr(i): Imponer(-uesto)  
 Ezteiak: Bodas  
 Eztiki: Dulcemente  
 Ganora: Fuste  
 Garaipen: Victoria  
 Gazi: Salado  
 Giltzape: Cárcel  
 Goibel: Triste  
 Gordin: Crudo  
 Gutiets(i): Subestimar(-ado)  
 Herabe: Miedoso  
 Hits: Sin brillo  
 Irazkin(du): Comentar(-ado)  
 Irrika: Deseo vehemente  
 Iraun: Pregunta  
 Itsu: Ciego  
 Izar: Estrella  
 Izardi: Savia  
 Jaurtiki: Arrojar  
 Jomuga: Finalidad  
 Kausi(tu): Acertar(-ado)  
 Kimu: Retoño  
 Konpon(du): Arreglar(-ado)  
 Landare: Planta  
 Lasa(tu): Relajar(-ado)  
 Lekuko: Testigo  
 Lora(tu): Florecer(-ido)  
 Lotsagarri: Repelente  
 Neke: Fatiga  
 Oldar(tu): Atacar(-ado)  
 Orpo: Talón  
 Orrazi: Peine  
 Osagarri: Complementario  
 Ospa egin: Evadirse(-ido)  
 Patxadan: Tranquilamente  
 Pila(tu): Amontonar(-ado)  
 Tenta(tu): Tantear(-ado)  
 Ur(tu): Derretir(-ido)  
 Zama: Carga  
 Zimentarri: Piedra fundamental  
 Zitxada: Pinchazo  
 Zola: Pavimento